

Iritsi da negua gure baratzetara



Udazken gozoaren ondoren, negu hotza iritsi zaigu eta gure baratzetako landareek horren eragina jasotzen ari dira egun hauetan.

Ze ondorioak ditu hotzak eta izotzak gure baratzetako landareengan?

Landareen zelulak elikatzeko urak eta nutrienteek (nitrogenoa, fosforoa, potasioa, e.a.) zelulen barrenera iritsi behar dute. Horretarako zelulen-mintza zeharkatu egiten dute egoera klimatiko normal batean. Baina hotzak aldatu egiten du landareen zelulen mintzak. Izan ere, hotzaren eraginez, mintzak gogortzen dira, hauen iragazkortasuna murriztuz, ura eta elikagaiak zelula barrenera sartzea eragotziz. Horrexegatik, landareek ez dira gehiegi handitzen garai hotzetan.

Eta zer gertatzen da izotzarekin?

Lau ordutan edo denbora luzeagoan, lurraren inguruko airearen tenperatura 0 °C-ra edo gutxiagora jaisten bada izotza sortzen da.

Bi izotz mota bereizten dira:

- Zuria, aire-masak hezeak direnean sortzen da. Hostotza eta loreen ondoko airea 0 °C-an edo gutxiagoan dagoenean gertatzen da hau, eta, ondorioz, airea kondentsatu egiten da eta izotz-geruza sortzen du landare eta lurraren gainean.
- Aldiz, ur-lurrun gutxi dagoenean, izotz beltza agertzen da, askoz kaltegarriagoa, ez baitu izotz-geruzarik sortzen, baina aldiz, landareak deshidratatu ditzake, barazkien

zati batzuk edo bere osotasunean hondatuz, fenomenoaren intentsitatearen eta iraupenaren arabera.

Baratzetako landaretan izotzak eragin ditzakeen kalteen artean:

- Brokoli: buruaren erdian dauden lore gazteak izaten dira kaltetuenak, marroi bihurtzen baitira eta usain handia askatzen baitute.
- Tipula: Bigundu egiten dira eta kolore horixka ia grisaxka hartzen dute.
- Letxuga: Epidermiseko zelulak hiltzen zaizkio, landarea zimelduz.

Baina neguak ere abantailak baditu:

- Barazki batzuk zapora hobia dute tenperatura hotzen ondoren: zerbak, espinakak, errukulak edo beste entsalada-hosto batzuk, azak, azaloreak edo bruxelen kasua da.
- Lan gutxiago egitea eskatzen dute gure baratzeez neguan.
- Izurri gutxiago daude baratzetan.
- Landareek ez dute ureztatzea beharrik.

Eta nola babes dezaket neguan nire baratzea?

- Landareak babestuz: landareak estali egin daitezke hotzetik babesteko, hibernazio-oihalak erabiliz. Landareen gainean erraz zabaltzen diren oihalak dira eta lurzorua tenperatura gradu batzuetan igotzen dezakete.
- baratzeko landareak deshidratatzea saihesteko eta ondorioz, landareak ez galtzeko edo galtzearen arteko dif
- Lurzorua babestuz: estalki organikoak jarri daitezke luraren gainean:
 - o Lastoa.
 - o Konposta: bere kolore ilunak eguzkiaren energia xurgatzeko gaitasuna duenez, lurzorua tenperatura zertxobait igo dezake. Nahikoa da lurzoru osoan konposta geruza bat zabaltzea.
 - o Hosto lehorren geruza: konpostaren efektu bera lortu dezake.